

ACTIVIDADES DEL SEMINARIO «JULIO DE URQUIJO»

AURTZAROKO OROIPENAK

(RECUERDOS DE INFANCIA)

LASARTE

POR
JUAN GARMENDIA CORTADI («ZELETA»)



onferencia pronunciada en vascuence por el autor, el día 26 de junio de 1958, en el lioteca de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa, durante el ciclo organizado ninario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», presidida por Monseñor Fray Ignacio aga, (O. F. M. C.) Obispo Misionero de Pingliang (China), y los ilustres académi-Lengua Vasca, D. Manuel de Lecuona y D. Luis de Michelena.

SAN SEBASTIAN
1958

Nere lagun maite-maite
ta eskola-izole egokia du
"Bordari" ospetunari
bikoiz.

Leleki

ESKEINTZA

Nere errikide ta eskola-lagun Arrieta, Añorga, Alzpurua, Azurtza, Cano, Eglzabal, Etxaniz, Galardi, Garbayo, Gartzia, Garmendia, Idigoras, Iparragirre, Izagirre, Kerejeta, Lasa, Lizaso, Lopetegui, Ormaetxea, Ormazabal, Otegi, Perez-Garmendia, Ubarretxena, Unanue, Yurramendi, Yurrita, Zendoya eta Zubeldia'ri, baña batik-bat «AURTZAROKO OROIPENAK» osatzen aintbeste lagundu didan Lander, lasartear jatorrari, atsegiñez eta malteki eskeintzen diet, txikitako oroltzapen go-goangarriz jantzirik argitara dedan liburuxka errikoi au.

J. Garmendia Kortadi

(Lasarte'ko «Largo-Enea» Etxe'ko semea).

Udal Liburutegia / Hondarribia
[Aurtzaroko oroipenak = (Recuer
Garmendia Kortadi, Juan
BF 82-94 GAR aur



3160992



AURTZAROKO OROIPENAK

Nere Jaioterria (Lasarte) orain 50 urte

GARMENDIA'tar Jon (« Zeleta »).

Lasarte ! Guziok jakingo dezuten bezela, Oria Mendi, Burretza Mendi, Ardatza Mendi eta Mendi Zorrotz deritzaien goialde ospetsuak gorde eta Oria ibai zabalak garbitzen duan Ernani eta Urnieta'ri dagokion auzo-urirtoa-da, nere jaioterri kutuna : LASARTE.

Goiko-Kale eta Beko-Kale izenez erdibitua da ; goi-aldea, Urnieta'-ri eta be-aldea Ernani'ri dagozkiolarik.

Kale-inguruan eta ezker-eskubietako goi-aldetan, ainbat baserri eder ditu, ta aitatuko ditugun abetxek aipagarrienak : « Mirakanpos », « Zatarain », « Etxeberri », « Txarte-Enea », « Baxaundi », « Zubillaga », « Buena Vista », « Argiaga », « Lartxabaleta », « Eskizabal », « Larrakoetxe », « Saltzate », « Goikoetxe », « Mitxelena », « Zabaleta », « Solla-Enea », « Pepe-Enea », « Etxetxo », « Goiegi », « Teresategi », « Zabaloe-Enea », « Astiazaran », « Palazzo », « Pintore-Enea », « Atzokabar Zar », « Atzokabar Berri », « Beko Errota », « Txoko », « Antzua-Enea », « Loidi », « Makatza-Enea », « Olatxo », « Tximistarreta », « Ubistin », « Torre », « Telleri », « Artutxa », « Sasoeta Aundi » eta « Sasoeta Txiki ».

Uri-ertz batetik Oria ibai zabala igarotzen da, aldamenetik « Zumau » eta « Intxausti » belardi ikusgarriak ditularik ; eta barren-aldetik « Ganbo » eta « Antzua-Enea » deritzaien erreka makalak osatzen dute, egoki, aipaturiko urirtoa.

Uri bezela, bai zabaleraz, eta berdin biztanlez, gauza gutxi zan aldi artan, gure Lasarte ; baña Aundia, izan zitun seme ta errikide ospegarriengatik ; langille, korrikalari, txirringulari (cilista) ta ertilari azkarrengatik ; ola (fabrika) aundi ta ontzuetseuengatik ; dema-bei bikañetakoengatik ; Sagardotegi onenetakoengatik, bola-toki ikusgarriengatik eta bere Eliza eder eta edestitsuegatik. (Irakur gai-onetzaz Lekuona jaunak disdiratsu

idatzi ta argitalduriko « La Iglesia de la Parroquia de San Pedro de Lasarte » deritzaion liburuxka irakurgarria, guztia jakingarria-da'ta).

Esan degun bezela, Ospe aundiko uritxoa zan, garai artan Lasarte, orain ditun apustu-leku « Hipodromo » ta jolasleku « Golf » deritzaienak etzituan arren, eta nik, ura ezagutzen, eta arekin oroitzen... ez oraingoarekin. Erri-itxuraz, ez oituraz, ez biztanlez eta ez industriz, ezpaitu lengoaren antzik !

Beraz, ni, gaurkoan, litro-sagardorik onena amabost xentimoan erosten gendun garaiko Lasarte zar arretzaz jardungo nate, ez lau-pesetan nolabaiteko litro-sagardoa ematen duten gaurko Lasarte az. Eta goazen arira.

Oso gazterik — bederatzi urtedun — aldendu nintzan, bizibidezko arazoak bearturik, nere jaitorrerri maitetik, eta 35 urte geroago-ostera lenbizikoz bertaratzen nintzan egunean, Goiko-Kale'tik asita, atzera-aurrera, ibili ta ibili begiratzuz Beko-Kale rañoko luzera guzia igarotzean, miñez, biotza, ofietaraño jetxi zitzaida. Aurtzaroan ezagutu ta maite izan zuen jaioterriari lengo tanke-rarik ez artez ark, erri-miñezko oldozpen biotz ukigarri abetan kikiidu bai ninduan :

« Lasarte ! Lasarte ! — nion nere baitan. Nun dituzu « Antzua'Enea »'tik asita « Sasoeta Aundi » bitartean zenitun gure gordeleku izan ziran zugaitz aundi eder aiek ? Nun dituzu, « Torre », « Atsobañar Berri », « Atsobañar Zar », « Sasoeta-Txiki », « Teresategi », « Goiegi », « Artutxa » ta « Telleri » aldeetan zenitun arrigarrizko sagasti aberats aiek ? Nun, Barrenkalet'ik asita, « Txikiardi »-ra bitartean, ezker-eskubi zenitun edertasunez jantzitako zelai-zabal ikusgarri aiek ? Nun, « Garbe » erreka barrenean zendun ur-bikañezko iturri emankorra ? Nun, « Ubistin »-go Sagardotegi otsaundi eta bertako bola-toki zoragarria ? Nun Lizarriturri eta Rezola'en « Koko » ola aundia ? Nun, Etxeberria eta Urreta'ren buztiañarri ola ospetsua ? Nun, Ugalde'ren atxurrdin (marmeleri) arrigarria ? Nun, Arrieta'ren izotz-ola entsufetsua ? Nun, Briñida lekaima edo monja'en Lekaimetxe-aurreko Lorategi begiragarria ? »

Bañan, a ! Nere-baitako galdera oldozkor guzi aiek, aizeak.

itorik, erantzupenik gabe gelditu ziran... lgaroak, joanak, ezpai-
tu itzulpenik !

ZIMITOIUA (PORTIKUA)

Uri guzik dituzte, noski, oroipen aundiko tokiren batzuk,
eta Lasarte'k ere ba'du berea : ELIZAKO ZIMITOIUA.

Ai, bere orma edo paretak zarrak itz egin aal'baleie !... Zen-
bat eta zenbat gertakun biotz-ukigarri edestuko ezlueke ! Lasar-
te'arrak txikitan Eliza'ko Zimitoioa zuten, gure aurtzaroan, bi-
garren jaitetxe. Etxetik eta lkastola'tik azke giñan ordu guzitan,
antxe izaten bai'giñan ! Gure izate ta gogapen guzik antxe iza-
ten bai'zuten gozapenik atsegiñena !

Gure gurasoak bertako ate aundian lendabizi Kristau eginik
Eliz-barruan sartuko ginduezen, ondoren uguts edo bataio san-
tua artzeko ; eta ordutik aurrera, zenbat ibildeun edo prozezio-
tan ibiliak ote-gera bere ate-zar-aundi batetik-bestera... ?

Gogoan degu oraindik, nola, lla'ren irugarren igandean,
Jauna agirian zala, kedatz edo insensudun « Minerva »-ko me-
za-nagusiaren ondoren ibili oigñan, gizon-talde bat kandela piz-
tuekin aurretik genitula, « *Pange lingua* » deritzan abesti zeru-
koa gozoro abestuz, baita agurtza edo bespera batzuen ondo-
rengo prozesioetan « *Kirie eleison* » arrentzak eta « *Ave, maris
stella* » gogotsu kantatuz arrats-elizkizunak nola bukatzen ziran
ere. Eta jai-aundietan, meza-nagusi aurretik ospatu oi-ziran ibil-
deunekin, nola ez oroitu ?

Eta Zimitoio artan bertan, zenbat ildako gurputzei — Eliza'k,
beretzat, endakiz guziak berdizak izanik — ildegira eramán aur-
retik azken-agurra egin izan zien « *In paradisum conducant
Angeli...* » maitetasunezko abesti biguñaren bidez.

Eliz-mixioak ere, ots aundikoak izan oi-ziran, gure aurtza-
roan Lasarte'n ospatu izaten ziranak ; bada uriko biztanle guzi-
etzaz gainera, auzo-urietatik ere, eta batez ere Oria, Zubieta,
Usurbil dik, gizon eta emakumezko talde aundiak etortzen ziran,
eta gogoan degu bizardun *praille kaputxinoak* buruzagi genitula,
nola, batzutan Oria aldera, eta besteetan Usurbil aldera irtetzen
giñan, uri aietako errömesei ongi-etorria egitera bakoizak geron

zeru-ikurrintxoak makillan puntan genula, ta nola, Elizara gu-
zien aurretik biurtzen ginan, gogotsu ta gozoro abestuz egundo
aztuko etzaizkigun abesti atsegin abek :

« Kristo'renak, Kristorenak gera ;
Kristo'renak betiko izango gera ;
Kristo'renak ziraden, gure gurasoak,
baita ere Euskaldun ben-benetakoak. »

« Birau txarrikan etzan,
ez, Euskal-Errian,
itz egiten zanean
Euskera garbian. »

« Kristo'renak, Kristo'renak gera... »

Eta orrela kantatuz, Elizan sartzen giñan... Ura bai izaten
zala egiazko sinismen-azalpena ! Ai, biurtu al-ba'gindezke aldi
zoriontsu artara !

Aurtzaroko jolastekari-buruz, ostera, zenbat oroipen aztue-
ziñeko une ontan datorkidan gogora !

Gure aurtzaroko jolasketak « arrapaketak », « gordeketak »,
« kuxkuluketak » eta « korroko kantaketak » izan oi-ziran, gei-
enik. Esaterako, « korroko kantak » onelakoak izaten ziran :

« Arringula, pirringula, zirtzilin,
kandela koskua txirripixtin ;
brinabin, San Joaquín :
paratxo ta aamatxo, txikita, prin ! »

Eta ume-abesti alai au, zozkeraz abestu ondorean, « arra-
pakistan » asten giñan, soñekoak urratzeraño. Gure ama gaxoak,
zartateko ederrak eman arren, lanik asko izaten zuten gure
zarpa-zarrak konpontzen. Baña, jipoi ederrak artu arren, gu,
beti « gurera », *auntza larrera bezela*, Zimitoio'ra ! eta an...
korroan biraka, kanta berriz ere :

« Barriola, barriola, prist :
 « sagarra, manzana ;
 « ikatza, karbon ;
 «« mujer, andria...
 « Hombre, gizon... ! »

Urrengo beste au abestuko gendun :

« A la kinkiñera,
 « a la samurrera,
 « gira ari beste aldera :
 « Patxiku aldatutzera ! »

Ondoren, berriz ere « arrapaketa »-ra, korrika, « bule ! », alde batetik eta « bule ! » bestetik, oiuka. Al gendun lekurik izkutuenetan izkutatu oi-giñan eta korrikaririk bizkorrenak giñanak Eliz-atzeko arripill-ostean edo « Ubistin » baserri-aurreko belar-metaen azpian... itotzeko zorian.

Ortan genbintzala, euri-jasa aundiak artzen ba'ginduzen, izkutu zulueta-rik irten, eta korrika, berriz ere Zimitoio'ra, indartsu abestuaz bidean :

« Ebia, mendia,
 « Astigarraga'ko txerria.
 « Oian azpin zer dago ?
 « Aingeru txuri-txuria ! »

Ernani'n, garai artan, gizon biurri begi bakar ospetsu bat zan « Etxekalte » deitzen ziena, eta ibiltze-alde sarritan Lasarte'ra, mendiz, Ernani'tik jeisten zana. Gu, mutil-koskorren poza izaten zan, berari urrititik ixeka edo burla egitea. Gutariko batek nabaitu oi-zuanean « Sasueta » basetxe aurretik, bera, Lasarte'ra zetorrela, oska asiko zan, eztarria urratzeraño : « Etxekalte ! », « Etxekalte !! », eta ordun, uriko mutil-koskor guzik talde batean bildurik, abestu oi-genion ernaniar gizajoari :

« Etxekalte »-k omen du
 « begia bakarra,

« goizean goiz jeiki-ta
« patarra naparra. »

Burlazko kantu onen ondorean izaten ziran istilluak, Etxe-
kalte guztiz asarreturik, arrika asiko zitzaigun, eta gu, Zimito-
toio'ra, ango orma zarren babesean izkutatzera. Garai artan guk
egiten genduzen biurrikeriak, ez dira nolana kontatzekoak.

Garai artan margo askotako txapelak izaten ziran, eta « txap-
elketan » asten giñan bakoitzean guretako bat txapel gorriakin
ikusi orduko burlazko kantu au abesten genion :

« Ai, ai, ai, mutilla,
« txapela gorria.
« Zer dezu izena ?
« Ipurdi gizena. »

Eta zenbat esan gaizto erabili izan gendun gure artean :
Domingo izena zuanari, « arrautza gorringo » esaten genioen ;
Martin zuanari, « talua ta sardin » ; *Joxe*'ri, « ederra dek oxe » ;
Erramun'i, « eltzia bete babarrun », *Joakin*, « astuaren burua-
kin » eta orrela, zenbat eta zenbat itz-gaizto !

Oso txikiak giñala, apaiz-etxearen azpian « Kolonia » zeri-
tzaion gozoki ta abar saltzen ziran denda txiki bat zan, eta ber-
tako andra-alarguna maitxo bat etxetik aterata, etxe-aurrion go-
zokiak saltzen egoten zan igande-arratsaldetan ; eta bi-xentimo-
koakin gozokiak erosi ondoren — ez gajoak alakorik merezi zu-
lako baña... — Zimitoio-ostetik ixekaz abesten genion :

« Enero, febrero, marzo, abril,
« Kulon »-en astua goseak il ! »

Bai ba ; « Kolon » gaitz-izenez deitzen zioten bere senar-
zanak, asto bat zuen, larreko janariaz bakarrik alikatu izan oi-
zatra, eta Jorrail batean, elurte aundik belarrak eztali zituzalarik,
zer janik ezta, goseak il bai'zan...

Orduko mutil-koskorak, — oraingoak eztakit nolakoak izan-
go diran —, makurrak giñan, benetan. Garai artan ba'gendun

gure kirako lagun gorputz-luxe argal-argal bat, « Joxe » izena zuana, eta aritxe ernegazi ta asarretu-erazi arteko onik ez gendun izaten, onako kantu ixekatsu au abestuz :

« Joxe, Moxe, igarra,
« Antzua'neko bizarra,
« sopa gutxi jan da...
« gizon kaxkarra... ! »

Jolas-kontuan, gure jostaketarik atsegiñena « Kuxkulluketa » izan oi-zan. Zeñek baño zeñek kuxkullu geiago irabazi izaten zan gure joku nagusia. Ortarako — joku au egiteko, alegia — Zimitoioan txulo bat egiña gendun, lurreko arri batean, eta bost bat metro urrutigotik txirristaka kuxkulua zulo artarutz bota eta zeñek kuxkullurik gein txulo artan sartu : ori zan gure jokua. Olatan, garaillena, Juan Joxe Arrieta zan. Ura izaten zan — gu baño azituagoa ere bai'ta... — gure kuxkullu guzikin jabetzen zana. Eta besteok, batere gabe gelditzen giñan bakoitzean, laistera bizian mendira jun oi-giñan, txaraik-txara ta ariztiz-arizti kuxkullu biltzera, berriz ere joku berari ekiteko.

Kuxkulluk asko maite giñun ordun, baña bai txanponak ere. Lasarte'n etzan garai artan guk nai bezin sarri aurrik jaiotzen ; baño jaiotza zan bakoitzean, bataiua noiz eta ze ordutan zan etzitzaigun berialakoan aztuko. Bataio bukaeran txanponak botatzen, bai-zituzten — xentimokuak eta bi xentimokuak, e ? — eta ordutan izaten ziran gurekin istillu ta zalapartak. Aiek arrapatzen, bata-bestearen leian, gorputzak eta soñekoak ederki urratu-rik, jipoi ederra artzera, etxeratu izan oi-giñan, baña askoz ohea etzana, aurretik, eskola-maixua-gandik artuta, geienez.

Konseju-Etxe azpian pelota-toki egokiagua egonagatik, gure griña gaiztoa beti Zimitoioa'n pelotatzea izaten zan. Paret bezela Elizaren ertz bateko ate aundia izaten gendun, baña ate-arrimo pelotan egitea galerazia zegonez, Eliza'ko « Segora »-rentzat izaten ziran gure pelota guziak ; bai ba, gu pelotan asten giñan guzian Eliza'n ixil-ixilik sartu ta pelotak atia jotzen zuanean « trank ! » atea zabaltzen zuan, eta, fit ! akabo gure pelota maitea. Eliz-barrura juten bai'zan, eta berantzako. Gero,

besterik ezpazan, beste pelota bat erosteko aña bixentimoko sortu arte, « A la kinkiriñera » jolasari eraso bear...

Ortik aurrera, zeñek zenbatu Zimitoio artan guk egiten ginduzen jolas obenge (inocente) eta erdi-obendunak ? Leku jostakin abek izaiten bai'dute, beste batzuk ez-duten alako « zer-bait », eta orrengatik, aurtzaroan leku erakargarriak izanik, zartzaroan oroigari zaizkigu leku begiko erimintsu abek, batez ere jaioteritik at urte askoan bizituak geranoi ; eta iñoiz bertara biurtu izan geranean, antxe ezarri oi-ditugu, *katuak xaguan bezela*, gure begiok ; baña len ain ekargarria, ain kutuna, ain zaratatsua izan zan leku-ukigarria, orain *ixil*, *paketsu* ta *itun* aurkitzen dala ikusteak tamalez (penaz) kuzkurtu oi-ditu gure biotz-minberak.

Gogoratu ta azterkatu ditugun aldi gogoangarri aietatik orain-aldirako bitarte luze ortan izan diran oitura-aldakuntza ta ekonomia-aurrerakuntzak sortu duten izaera berri onek ba'dirudi, gure irudimenean, ziatz bukatu naiduala lengo aldietan ain gogoko ta ain-biotz-ukigarri genitun izakera arau guztiekin.

Orra, entzule maiteok, garai-berriko izakera-aldaketa ta ekonomia-aurrerakuntzak irazandu digun ondore kupiragarria. Beintzat nolabaite galdu dira illea zuritzaño iritxi geranoi beñiere aztuko eztzaizkigun aurtzaroko esaera jator, kantu goxo, oitura on eta gaitzik gabeko jolas atsegingarriak. Eta gertakun mingarri onek gogorazten digu, une ontan, « Basarri » bersolari azkarak gaiari-buruz bere bertso-sorta biozkoian kantatzen digun bertso samingarri au :

« Beldurgarrizko aurrerapenak
« ditugula an da emen,
« nik pentsatzen det sekula baño
« atzerago ote gauden.
« Erruki danak uxatu dira ;
« indartsuena gogorren !
« Gaurko gizonen jakinduria,
« orra zertara datorren. »



1903.—Orain 55 urte, eskola lagunekin, orduko gure irakasle edo maixua, Solabarrieta jauna, erdian dala.



1946.—43 urte geruago, gure maixu izandako Solabarrieta zanaren eriotz-omen egunean, txikitako lagunekin.

GURE ELIZA'KO AMA BIRJINA ERRUKITSUA

Lasarte'ko Eliz-Nagusia'k duanik giza-irudirik (imagen'ik) ederrera ta begiragarriena, Ama Birjiña Errukitsua'rena-da. Bai eta-da Gipuzkoa guzian irudi au bezin ikusagarria danik? Lanak margo ditu aurkitzeak.

Bere seme Jesus besoa duala arkitzen-da, bizirik ba'lego bezela, ta lenengoz ikusi izan dutenak, guztiz arritu dira ain begiragarria dala oarturik. Goitik beeraño, dana zurezko soin-batua da, eta oker espagaude, amaseigarren gizaldikoa. Ain arriagaria izanik, urte batean Donostia'ko Erakusketa edo Exposizi-oi batera eramana izan zan.

Lasartearrak antxiñatik eraspen edo debozio aundia izan zio-
an berari.

Altare nagusiaren eskubi-aldetik zuan, gure Ama Birjiña Errukitsua'k, bere ondi berezia. Zapi batez eztabia egon oi-zan, berari zegokion elizkizun egun arte, orduan bakarrik izaten zalarik aginian jarria.

Esan degun bezela, lasartearrak Bera'ntzako zuten guraria, irikitsuagorik ezindakoa izanik, Eliz-Nagusi'ko Zaindaritzat bezela artu oi-zuten, jatorrezko Zaindaria Pedro Deuna izanagatik.

Gogoan ditugu — eta egundo erditugu artuko — gure Ama Birjiña Errukitsa'ri lasartearrak egiten genizkan Bederatziiurren oneraspentsuak. Egun zoragarri aietan sartu apanekin orni-
turik ikusgarriro apaindua izaten bai zan bere ondi disdiratsua.

SAN JOSE

Gau: eskarbi batean izar-disdiratsua Zeruko zapaian beren aunditasun eta edertasuna nabarmendu izan oi-duten antzera, San Jose'k ere bere aunditasun aintzagarria nabarmentzen digu beste santu guzian gaindik. Izate alatsu au egizten digu, ezparrak gabe, edonun Bera'ri zaion oneraspen edo debozioak.

Beste toki guzitan bezela, Lasarte'n ere, oneraspen aundia-
kin espantu oi ziran bere aintzako elizkizunak, gure aurtza-
man beintzat. Ortarako, aurrez gertatu bearrik asko ere izaten

gendun eta guk nai bezin faister eta errez ez-giñan iristen egun zoragarri artara.

Aunditasunik ederrean ospatu oi-zan, San Jose'ren Bederatziurrena, urtero, ta elizkizun aitara derrigor jun bearra izaten gendun. Eta bearko jun ! gure eskola-maixua aurretik genula ; bestela... ai, bestela ! urrengo egunean izaten ziran kontuak. Artarako aurrez ederki gertaturik euki oi-zitun gorozti makillekin bapo berotu izan zitun gure buru ta bizkarrak, orduko maixu zan Solabarrieta jaunak.

Beti Eliza'n sartuta ikusten ziran jakiñeko emakume batzuk, txukun eta egoki asko antolatu ta apaindu oi-zuten Jose Deuna'ren irudia, lore usaitu ta jantzi-berriz orniturik altare guzia. Beragan gure begiak itzulirik, Zeru-txiki baten aurrian gendela irudi oi-zitzaigun. Izan ere, anbestetarañokoa bai'zan gure begiaurrean altare disdiratsu ark erakusten zuan edertasuna ! Eta gu, mutil-koskorak, noiz baño noiz bukaera iritxiko, irrikatzen egon oi-giñan, Balentin Galardi zanaren abestaldeak, berak organoaz lagundurik, abestuko zitun abesti mamitsu abek entzuteko :

- « Zure gozoa'rengatik
- « zenduanian aditu :
- « Espiritu Santua'gandik
- « zuela kontzebitu,
- « zure esposa, eta jun zirala
- « zure keska-samiñak
- « Jesus'i eskerrak diozka,
- « Maria'ri atsegiñak. »

Abesti auk, Jose Deuna'ren zazpi gozo ta zazpi atseka-bien aintzaz, zazpi aldiz abesten ziran elizkizun bakoitzean, koruko abeslari ta eliztar guztien artean, guztiz adigarri.

Baña Bederatziurren au bukatzerako, arbik loretzen asiak izaten ziran, eta garai ark sortu oi-zuan, orduko eliztarren artean, alako kezka edo bildur bixkabat. Baiba, arbi-loriekin bation etortzen bai'zan « Txartel » denbora, eta oraingo aldi-berri ontan bezin errez nola eskutzarik izaten etzan ainbeste buru-

auste eman oi-zigun txartelik... orduan izaten ziran komerik Gazteak, bai zarrak, iñok utsik egin gabe, danak jun biar izaten bai'zuten txartel'etara ! Eta « dotriña » ikasita jun bear ; Bestela, zer ? Orainago illa dan D. Rosendo Rekondo, gure orduko erretore zanak, ezpaizuen txartelik emango !

Oraingo eliztarren artean, ezagutzen ote-da txartelatarako alako kezka ta bildurrik ? Ezetzean nago. Ez bildurrik, ez pozik, agian, orain ; eta Jose Deuna'ren egun aundi ura ere, igaroko zaigu, alako berezitasun nabarmenik gabe, oraingo Uri-Zaindari-Egunak bezelaxe... Alare, aurreraka omen goaz, eztaukagu beraz zergatik negar egin !

« SANTA ANA » JAIA

Lasarte'k bere Zaindari SAN PEDRO jaien urrena, gure txiki-denboran, ospatu oi-zuan, gabaz, « SANTA ANA » jaia zeritzana, baña sorgin itxura zarpalleko jaia, ta iñok etzekiña noiz sortua ta zergatik sortua zan arrats-jai ura.

Batzuek esan oi-zuten, Lasarte'n sendi edo pamili « litxarero » bat bizi izan zala, aldi baten, ardandegi batetik zagi bat ardo ostu zuana, eta zagi-lapur ura bizirik erria izan zalako sortutako jaia zala SAN ANA eguneko arrats-jaia, Oiartzun Etxea'ren eta Konseju-Zar bitartean zegon « Karkaba » zikin illunean su eman eta erreaz, erretxiñekin igurtzirik, erriko ardandegietan izaten ziran zagi zar guztiak.

(Gai oni buruz, idazkai (artikulu) bat idatzia det « EGAN » aldizkarian argitaltzeko eta gañeantzeko zertzelada guzik antxe irakurriko dituzute argitara danean).

SAN JUAN EGUNA

Urtean izaten zan egunik alainetako bat, auxe izan oi-zan lasartearentzat : *San Juan* eguna.

Etxeetako ate-zabal guzik lizar-arbasta ederrez apainki jantziak izaten ziran, eta goizean-goiz mutil-aldra eder batek esnasiko zituan biztanle paketsu guziak, filarmonika soñu alaiaz abestu oi-zuten abesti biotz-zirraratsu onen bidez :

« Dios te salve, ongi etorri,
 « Jainkoak eun on diela ;
 « legearekin kumpli dezagun
 « San Juan eguna degula. »

EGUERRI EGUNA

Egun zoragarri au etortzeko ere, irrikatzen egon oi-giñan, gazteok. Elizan aundikiro ospatuko zan meza-nagusi ederra bukatu ondorean, organo-soñuaz gaiñera, *pandero*, *txintxin* eta *kaskañuela* otsean bukatua izaten bai'zan, onako Gabon-kanta atsegingarri abek zoragarriro abestuko zituztelarik :

« Gaur Belen'go artzaiak
 « arritu dirade,
 « datorrela ikusita
 « orrenbeste jende :
 « zarrak eta gazteak,
 « aberats eta pobre..
 « Guzi-guziak, dira,
 « aurtxo onen zale ! »

« Belen'go portalean
 « estalpe batean,
 « Jesus jaio da, umil,
 « abere artean.
 « Astoa ta iria
 « dauzka aldamenean,
 « asnasaz berotzeko
 « oztutzen danean ».

Ortaz, gainera, GABON-besperan uriko mutil-taldeak, etxez-etxe ibiliko ziran nere errikide ta txikitako lagun Etxaniz'tar Lander euskal-idazle argiak asmatuniko gabon-tantu errikoi abek :

« Iru erregiak datoz
 Emari'n barrera,
 au bai lasartearren
 poza ta atsegiña.
 Jende guzia azkar
 Erregi-engana,
 aurretikan Alkate
 lurrita jauna ».

« Gabon gaba-da eta
 gau oskarbia,
 eskera atera-da
 gaztedi taldia,
 Olentzaro egiñaz
 txolar itxusia,
 bertsolaria, berriz,
 Joxe « Baxaundia ».

« Angel « Txorro^k » asi-da
 danbolina jotzen,
 danborrarekin, berriz,
 Oiarxun laguntzen.
 Gure Errizai, « Luxia »,
 etxapleuak sutzen,
 Kaximiro dalako
 Belen'a irtetzen. »

« Aintza Jaungoikoa'ri
 Goiko Zeruetan,
 diote aingeruak
 Lasarte ingurutan
 Geroztik txarrik ezta
 uritxo onetan ».
 Pakeak garaitu du
 GABON egun ontan ».

MARTIN « KOXKOTE »

Gure erririk geienetan izan oi-da gaitz-gabeko edo malizi-
 gabeko errikide erdi-txoro, alper aundi edo iñoxente antzeko
 biztaleren bat, eta Lasarte'k, gure gaztaroan, bat baño geiago
 zitun tankera ontako gizonak ; baña danetan ospatsuena eta
 aipagarriena, bat : MARTIN « KOXKOTE ».

Lasartear irrigarri onek, Martin zuan bataioko izena, ta
 Abalia, jatorrizko abizena. Jatorrizko izen-abizenek, etzuan or-
 dea iñork ezagutzen ; baña « Koxkote » gaitz-izenaz, ez La-
 sarte'n bakarrik, baizik inguru errietan ere guzik ezagutzen zu-
 ten.

Gure « Koxkote » au, arlote aundi bat zan arren, ekandu
 on eta esku-garbikoa zan, eta egundo txanpon baten jabe izan
 zela ere, litzarerritan zikindu gabea eta guztiz biotz on-
 eneko mutil zar onbidetsua.

Bere bizitza kapiagarria, amaika mesede egiña zan, bere
 erriaren artzan, bai auzokoetan ere, utsaren alde.

Ezan dezakegu, ezpairik gabe, lagun-urkoaren otseintzan

igaro zuala bere bizitza errukitsua. Bere denboran zenbat kilometro erabili ote-zituan, oñez, besteren mandatu'gintzan ?

Oraingo aldi-berri ontan bezela, aldi artan etzan urrutiz-konik (telefono'rik), bultziririk (tren'ik) ez tximist-burdi edo Tranvia'rik, eta auzoetako mandatuak oñez egin bear izaten ziran eta bearrezko egin bear ori utsean eta atsegiñez bete oizuan gure « Koxkote » onbidetsuak.

Garai artan osagillerik (médico'rik), abere-sendagillerik (veterinario'rik), ez sendakitegi ((farmacia'rik) ez-gendunez, Lasarte'n, eta norbait gaizkitzen zan bakoitzean, Martin « Koxkote » jun oizan, leial eta txintxo, Ernani'ra, sendalariaren billa ; abereren bat il-zorian ba'zan, berdin, bera juango zan abere sendagallaren billa ; eta zer esanik ez osakai (medicina) billa ere bai, korrika, Usurbil'era. Au dana asko eztalarik, gure Praisku arakin dollorak ere, bera bialdu oizuan azokan (feria'n) erosita utziko zun zekoraren billa ere. Ain biotz-biguneko izanik, ez-bai'zuan inori ezetzik emateko almenik gizarajoak. Baña baldintz naigarri aben aurka, beste baldintz txar bat zuan berekin lasartear tolesgabe edo inoxenteak : neurri-gabeko ardo-sagardo era-lea zan gure erritar errukitsua.

Orrengatik edo erdi-txorotzat gendukalako, mutil-koskorrok ondo eskergabeak izan gitan berarekin, bada erdi-moxkorturik aurkitzen gendun bakoitzean bere aurrekaldean bildu eta danok batean onako kantu iraintsu au abesten genion :

« Kalapatxin, kalapatxin,
jo zazute aguria.
Zefiek arrapatu,
zefiek arrapatu... ?
Jo zazute...
Martin « Koxkote ! »

Eta au esanez batera, plast ! batek, eta plast ! besteak, aurpegian, buruan edo bizkarrian zartateko bat emanaz, korrika iges-egiten gendun. Eta jakina !, batzutan guk emandako zartatekuengatik, eta bestetan berez erorita artzen zituan kaskatekuekin, aurpegia, burua edo besoak eri zitula ikusi oizan beti.

Aldi artan astero etorri oi-zan Naparroa'tik Prantxisko izena zuan ardolari (vinatero) ospetsua, bost-mandoko gurdi aundia-kin, eta gure « Koxkoté » ardoz ase-eziñekoa izanik, napar-ardolari ura Lasarte-ratzen zan bakoitzean, gure « Koxkote »-ren poza ! Mutikoak oñetako berriekin baño pozago, gurdi ta mando aurrean egundoko dantza-txoroak egiten ibiltzen zan, eta gero, basotik ardoa edatea, espñañak bustitzeko baizik etzala-ta, pazi aundi batetik eran oi-zuan lurrera zerraldo erori arte...

Egun batean, tankera negargarri ontan aurkitu zalarik, inguruko batzuk bere etxera, besoetan artuta eraman zuten, eta eskaratz edo sukalde erdin luze-luze utzi. Bere ama Brigida, oeraturik aurkitzen zan nunbait, eta seme errukarriaren ler-gaizto egin bearreko purrustada otsakin esnaturik, laisterka urbildu omen zan sukaldera, eta eskaratz guzia putzu-gorritz eztalia zegoala ikus-zuanean, estu eta larri galde omen zion bere kutunari :

— Baña, Martin, Martin ! Zenbat odol botatzen ari aiz ?

Eta semeak, ezer txarrik gerta-ezpalitz bezela, bare-bare erantzun :

— Ez estutu, Ama ; ez estutu ; ezta odola-ta ! Ardoa da...!!

Mozkor-tankeran aurkiturik, amaika aldiz belarritik elduta etxera eraman oi-zuan errizaiak ; baña, ura etxean egon ? Bai zera ! Errizaia izkutatu orduko, saltaka ta brinkoka, berriz ere kalean izango zan bere betiko kantu-txoro au anka-tarteka txaloak joaz abesten zualarik :

« Anda que te den, que te den,
txapela gorri ;
a tí que te importa :
mokoso txar ori... ! »

Gure « Koxkote » onek ba'zuan bere kirako lagun kutun bat, erale porrokatua au ere : Joanito « Konkor ». Zorria baño alperregoa zan berau, eta « Koxkote »-ren irabazi-apurrak elkarrekin sagardua edo ardo erateko izaten ziran.

Erale arlote au, etxean gaizki ikusia zan, eta zakurra bezela etxeko geikin edo sobrante'ak janaz alikatu izan zan. Egun ba-

tean, bere tankera arloteaz kupiturik, « Koxkote »-k esan omen zion :

— Aizak, Joanito, etorri ari gure etxera ta alkarrekin biziko gaituk ; neria erdi-bana janaz ta eranaz. Primera'n biziko gaituk eta etorri, ezaiala « tontua » izan...

Baita gogo-onez « Koxkote »-k bere etxera eraman ere, « Konkor » arlotea. Eta onek, etxean sartzean oarturik barrika aundi bat aurkitzen zala eskallera ondoan, guztiz pozturik « Koxkote »-ri esan omen zion :

— Arrazoi uken, Martin. Bejundaikela ! Barrika au sagardoz betia ba'daukak, primera'n biziko gaituk, i ta ni !

Eta Martin'ek : lotsaz gorri-gorri eginik :

— Baño, utsa zioz ordia ?

— Utsa ? — « Konkor'ek biziho arriturik — Ordun, ni bantziek nere etxera !

— Zeatik, ordia — Martin'ek.

Eta « Konkor »-ek erantzuna :

— Barrika utsa dagon etxian, ezin bizi gindezkelako, ez i, ta ez ni !

Martin « Koxkote »-k ain tamal edo pena aundia artu zun bere lagun kutunak artu zuan erabaki osa-eziñakin, urrengo egunean bere burua putzura bota zun, antxe litotzeko asmoarekin ; baña ez aurrez maiko ardo edan gabe ; baña urak geiago pisatzen nunbait, ardoak baño, ta ur-gañian gelditu zalarik, ostera etxera itzuli zan, guztiz makaldurik, lasartear errugea.

Geroztik, baña, etzuan egun bat onik izan, eta andik laister, Ernani'ko Gaxotetxean (Hospital'ean) il zan, bere bizitza naigabetsuan ainbeste on lagun-urkoari gogo-onez egin izan zion gure erritar errugea.

Bere aita Pedro Mari (« Koxkote Zarra »), etzan semea bezin biotz-onekoa, Zital-samarra zan, eta txiro-arroa. Eskean bilutako txanponekin bizi izaten zan eta ardoa zan bere lagunik kutunena. Eskean ezpazan, beti ardandegian sartuta egongo zan, gezur-kontari, munduko jakintsurik aundiña bera izan ba'litx bezela.

Igande batean — auteskunde edo elezio eguna bera — « Largo'Enea » zeritzan ardandegian aurkitzen zan, aitura be-

zela, ardoz bapo berdozturik, lasarteaz aurtankiduaak beren autarkia (voto'a) Emania, batzuk « zuriei » eta besteak « beltzai » emanik, ardandegi artaratu ziranean. Aldi artan ezpaizan « zurik » edo « beltzak » beste alderdi edo partido'rik, eta « Koxkote Zarra »-k autarlari (votante) aien atsegiña eramana-eziñaz, onako bertso iraintsu au'bota zien :

« Batetikan « zuriak »
bestetikan « beltzak »,
denak dituztelarik
elkarrenak antzak :
soñekoz edergarri,
azpitik arantzak,
lotsatzekueak dira
oraingo mudantzak. »

Arro ta egoki kantatu zuan gure agure zarrak, baña aldakizte zer gertatu zan. Ara : Autarkide (Votante) aietako bat, bertsolaria izan, eta bat-batetan eta ueste-gabeen, onako bertso onekin erantzun omen zuan :

« Koxkote Zarra », emen,
gizona iaioa,
lau-kuarto ezdelarik
bere balioa.
Ontzia izan ba'zan...
aze kankarrua !
Orain azkenerako...
purgatorioa... ! »

Ikustekoak omen ziran orduantze « Koxkote Zarra »-ren aska-putska eta maldizioak. Arren mingaña ! « Matu... matu... Perkaia, itz arrotzak jauntiaz ardandegi artatik diabru guzik berekin ba'zitun bezela, esku-makillari gora ta beera eragiñaz, Barrabas'en gisa abiada bizian alidendu omen zan.

Zozoak belcari « ipur-beltz » esan oi-degu, ta auxe bera gertatu zan egun-batez « Koxkote » aita-semiekin.

Igande arratsalde batean « Konseju-Zar »-eko ardandegian « Koxkote Zarra » ardoa-bañore mozkorrago egokera kupiragarian zegoala oarturik, besoetatik artu eta bere etxera poliki-poliki nola edo ala eramien genduan « Konseju'pean » pelotan genbizen mutil koskorrak, eta eskaratz edo sukalde erdian utzi gendun, lurrean etzanik. Une artantxe bertan azaltzen da, bere seme Martin, eta onek, bere aita alako tankera itxusian ikusteak guztiz lotsatu balu bezela, negar-doñuan eskuak burura eramaz, esaten dio aitari :

— Ai, au lotsa ! Nere aita tankera ontan ? Gezurra dirudi ni naizen mutil jatorra izanik, olako aita mozkor baten semea naizela esan bearra !

Zozoak beleari : « IPUR-BELTZ ! ». Ez alda egia ?

Joxe « Baxaundi », oso lasartear jatorra zan, baña izkirimiri (bromoso) izugarria.

Bein batean bere basetxetik kalean sartzen, aspaldin ikusi etzuan adiskide kutun batekin uste-gabeen aurrez-aur aukitu zan, eta ark baxoerdi bat artzera konbiatu. « Largo-Enea »-ko ardandegian sartu dira, biak, alaiki, eta konbiatzalleak esaten dio ar dangizonari (tabernero'ari) :

— Bernardo, atera bi baxoerdi ; baño « seltza »-rin, neri.

— Eta len daukan ura kenduta, neri — dio, Joxe « Baxaundi »-k, lotsaz gorri-gorri egiñik utziaz gure ardolari tranposoa.

Garai artan, Zubieta'ko eskola-maixuari, genio txarreko gizona zalako edo, « Katuba » deitzen zioten bere ikasleak, eta « Zerri », ikasle gizen bati. Eta egun batean bere mai-aurrera deiturik, galde dio « Katuba »-k (maixuak) ikasle « Zerri »-ri :

— Vamos a ver : definame el nombre sustantivo, CERDO.

Eta ikasle bigurriak, bat-batean erantzuten dio maisubari :

— Nominativo, del CERDO. Genitivo, del GATO.

Ango istilluak ! Irri-barreka asi ziran ikasle danak, eta ma-killakin joka ikastolatik atera bear izan zituan ikasle danak, maixu zitalak. Eta aiek orixe nai ; egun artan, beintzat, etzuten eskolaik izan !

« Txirrita » bertsolari ospetsua, « argiña » zan, opizioz. Gibel aundiko gizona ta ateraldi parregarrik zitun ; baña alperra, gizarajoa. Maitasun aundia zion Lasarte'ri ta uritxo ontan aldi

luzeak igaro oi-zituan, bere bertso ta ateraldiakin sagardu-erate galantak egiñaz lagun-urkoaren bizkarretik.

Egun batean orma edo paret' gintzan ari zalarik, bere nagusia partu zan, noski, ormako zuloak arriz eztali bearrean, morteroaz plasta ! ta plasta ! eztaltzen ari zala, arriz betetzen ez nekatzeagatik, eta nagusi ark, asarre antzean, esan zion :

— Aizu, Txirrita ; *mortera* ain ugari erabiltzekotan, eztegu arri bearrik.

— Eztegula arri-bearrik ? — dio Txirrita'k — neri esan ori ? Bā, *mortera* ez erabiltzekotan, ezta *palik* ere, ez-degu bear ! — eta eskuetan zeukan *pala* arrika bota eta Pontxio, beste bere laguna, — argiña au ere, baño bera bezin alperra, ta sagardozalea — besotik zuala, lurrita'neko sagardotegian sartu zan.

An zeuden beste sagardozaleak, lan-orduan bi argin aiek sagardo'tegiratu zirala ikustean, norbaitek esan zun, danak entzuteko eran :

— Emen dituk munduan diran bi alperrik aundiñak.

— Au dek *fama* jende onek ematen diguna, Txirrita ! — dio, Pontxio Olano'k, eta au izan zan Txirrita'ren erantzuna :

— Alperrek gerala ? Egia, baño, batek besteak baño aundiagoa bear dit izan, eta oaintxe bertan, danen aurrian egin dezagun apustu, zein alper aundiagoa izan.

Jendea, guztiz arriturik eta pentsa-eziñik gelditu zan, Txirrita'ren ateraldiakin, nola arrano izan zitekian zein baño zein alper aundiago zan erabakitzea ; baño egoki moldatu ziran, alper-aundi biak. Ara nola :

Pontxio, poliki-poliki lurrean etzanda gelditu zan. Txirrita, berriz, berari begira geldi-geldi...

Ortan, aldi luze bat igaro ondorik, etzanda zegon Pontxio'k ala dio Txirrita'ri :

— Ba... ! Nik irabazi diak, alper-apustua, Txirrita !

— Ik irabazi dekela apustua ? Zer dala-ta ? — dio, Txirrita'k, eta Pontxio'k erantzuten dio, lurretik jeikiaz :

— Ni, batere mugitu gabe, zerria bezela etzanda egondu naizelako !

— Ni, berriz, — dio Txirrita'k — zutik, geldi-geldi, etzateko alperrez !

Eta, jakiña ! Txirrita'k irabazi zuan alper-apustu ura.

Beste bein, Txirrita mutil-zarra izanik, zirikadaka asi zitzaizkion Sagardotegi'ko adiskideak, esanaz, alegia ala baño, ezkontuta, askoz obetuago biziko-litzakiala, ta galdera au egin zioten:

— Txirrita, egundo ez aldezu andregai bat izaterik pentsatu, edo inoiz ortaz ala-muduzko emakumeren batekin ez altzera izketatu ?

Bai Txirrita'k azkar-asko erantzun ere, iru bertso aben bidez :

« Izketan asi nitzan
oso goxo-goxo.
ezkontzeko mandatu
egonikan atzo.
Leiotikan ujuka
ama ta bi atso :
ez-naute arrapatuko
uste bezin mantzo. »

« Bera dudan zegoan,
aita gorrotuan,
ama ere an zegoen
ia arrotuan.
Ertezelo oriek
lendik ba'nituan,
despeida eman ba'lit...
obe seguituan ! »

« Praille sartuta ibili ba'nitz
emanaz aibat misio,
nere gorputzak etzun izango
orain añako bizio.
Eliza'tikan nabil aparte,
Tunantia'kin zozio :
tripa zar onek asko biar-du
baldin ematen bazaio. »

Txirrita'ren bertsoak, etziran beti ulgetakoak (bruma'koak) izaten. Ben-betakoak botatzen ere, bazekin ; eta ez inolaz ere, rutsuki baizik. Udarregi zaharen omenezko jaiari, ona emen nolako bota zun :

« Usurbil'kua zala
Udarregi zana,
amaika egi eder
munduan esana.
Bota ba'litu ere

golpian dozena,
ezin zeikian buka
aren almazena.
Gu ez-gerade inor :
ura zan gizona ! »

LASARTEARREN ATERALDI TA XELEBREKARIAK

« Kattanero » ta Juan Mari « Pintore », etxe batean bizi ziran : bata goiko bizitzan eta bestea bekoan. Zakurra ta katua bezela beti alkarrekin asarre izaten ziran.

Bein batean, alako erritaldi aundi baten ondorean, Juan Mari « Pintore » - k « Kattanero » - ri, bururatu zitzaizkion itz-loidatsu guzik esan ondoren, beste itz iraintsu au arpegira bota zion :

— « Kattanero, alu ori ; i, gosiak bizi aiz !

Eta, Kattanero'k, arrabi bizian erantzun zion Pintore'ri :

— Ala Jainkoa ! Berriz ere gosiak biziko nak, bart arratsian bezela baratzako aza, tipula ta porru guzik eorrek ostutzen ba'dizkiak.

Erantzun egokia, benetan.

Bixente « Axal »-ek, beste lasartear askok bezela, Oriako Brunet'en oial - landolan lan egiten zuan, eta landola artako langilleak, oñak accido'az ez kutsutzeagatik, eskalaproekin ezta-derik lan egiten zuten. Lanari utzita etxeratzen zan bakoitzean, eskallera'pean gorde oi-zituan bere eskalaproiak, eta au jakinik, beste langilleak, onez edo gaitzez, beti « Axal »-i ostu egiten zizkien bere eskalaproiak eta ernegazio bizian beti eskalaproia berrik erosita jun bear izaten zuan lanera.

Alako batean, eztabaida bat sortu zan langille arvean, alegia, acido'ak nundik galtzen zituan eskalaproiak jakin-naia, eta inorik ezin erabakirik. Bixente « Axal »-i galdetzen erabaki zuten, eta beragana joanik, galdera au egin zioten :

— Aizu, Axal : nundik uste dezuz zuk galtzen dirala eskalproiak ?

Eta Axal'ek, bat-batean, eta arrabi-bizian, erantzun zien :

— Nere eskallera'petik !!.

Aitaturiko landola artako nagusi itzal, Brunet jauna, bein batean paseatuz Lasarte - aldera zetorrela oarturik, Prantziska « Indianea »-k bide erdira irtenaz galdera au egin zion :

— Aditu beza, Don Ramón : bizio guzik utzita, beñere baino gordinago aurkitzen dala iruditzen zait. Ez alda egia ?

— Ez, Prantziska, ez ; nik ez ditut *biziuak* utzi : berak utzi naute - — erantzun zion, Oriako jaun itzaltsuak. Bai : urteak ezpaitute barkatzen !.

Zubieta'ko « Larraga » baserri ospetsuan, bi seme zituzten : Pio ta Agustin. Gurasoak guztizko elizkoiak izanik, bietako bat apaiz egitea erabaki zuten, eta bestea baño buru argiagoa izanik, Agustin egin zan apaiz.

Apaiz zegon erritik bein batean, *oñez*, beti bezela bere gurasoak ikustera zetorrela, Andoain'go Ubillotz basetxe inguruan sudurreko odol-jario aundi batek arturik, aitaturiko basetxearen orma baten arrimo gelditu zan, eta bertako Etxekoandrea oarturik apaiz jaun ura ain tankera kupiagarrian aurkitzen zala, *odola bota ta bota*, etxean zuan ur-ontzirik ederrena artu, eta apaizaren sudur-pean jarri, ixuritzen zan odola artzen jarri zan ; *baña ontzia leporaño betetzen ari-zala-ta*, guztiz larriturik, urontzia Zeru'runtz jasoaz, eta negarrari emanaz, oiutriste au jaurti zuan.

— Ene Jainko maitea ! Orrenbeste odolekin, zer egin bear det nik orain ?

— Odolkik egin ! — erantzuten dio apaiz adoretzuak. Markox argiña, Lasarte'ko aldi bateko burni-olan, zortzi-

errial'eko lan-sari edo jornalakin argintzan aritzen zan, eta jornal askarra zala ura-ta, Oria'ko Oial olan geiago emango ziotelakoan, nagusiz aldatzea erabaki zuan ; baña, txasko ederra eraman zuan gizarajoak. Etxeko lanbidea utzi, ta auzora jun zanean, Lasarte'n zun jornala baño errial bat gutxiagokoa jarri zioten, eta arren naigabea orduan ! « *Purru jorratze ederra egin diagu* », bere kolkorako esanaz, eta buruari azkaka, nagusi berriangana jun eta malizi aundiakin Brunet jaunari esan zion :

— Ai beza, Don Ramon : Lasarte'n sortzi errialeko jornal ematen ziaten, andik oneraño etorri, eta *Zazpi*... Esan nainizuke, alegia, orain au utzita Andoain'era juango ba'nitz. sei errial emango lizkiekela, eta ez-nuala mugitzera iñora ere : bertan gelditzen naizela. Egoki mintzatu zan gure argiña, baña alperrik. *Zazpi errialekin konformatu bear izan zuan gizajoak*.

Gure gaztaroan, leendik aitatu ditugun baño gizati irrilari ta gizajo geiago ere ba'ziran Lasarte'n : « Txartel », « Lang », Praisku « Ortza Bakarra », Migel « Tonto » eta abar ; baña bai gizon prestu, gizon argi, gizon burutsu, adimen aundikoak, eta kristau eredu eta ospegarriak ere, ainbat, beren adore, almen eta jakituriaren neurrian gizonki ta zuzen, gaizkintzari uko egiñaz, erri eta errikoen onbidetasunean bere bizitza guzian arrigarriro leiatsu izan ziranak, eta saiatzen diranak :

Muñagorri, Olasagasti, Zatarain, Ugalde, Mujika, Urreta, Arocena, Lizaso, Lasa, Añorga, Etxaniz, Arrieta, Perez Garmendia, Mercera Yurramendi, Ormaetxea, Bendoia, Ormazabal, Garbayo, Ubegun, Yurrita'tarrak eta Solabarrieta jauna, guremaixu zuur eta erakusle aundia izana.

Eliz-gizonetan, zer esanik ez. Aipa ditzagun Don Prudencio, Don Rosendo, Don Luis eta Don Francisco, apaiz zintzo ta jatorrak, guri Zeru'rako bidea erakusten ainbeste alegindu ziran jaun zuzen eta itzalgarriak.

Baña, aspertu zaituztet, jaun andreak, eta bukatzera noa, 1946'Gko. Uztailarren 21'an, Lasarte'tik kanpora bizi geran errikideak gure maixu-zanari egin genion anai-maitasunezko

amen-jai aundi artan erri-miñak eraginik egin nuan itzaldian
esan nitun azken itz nabar abekin :

« Errikideok, alegin gaitezen gure Irakasle Solabarrieta izan
zan bezin gizon zuzen eta ereduokorrak izaten ; lan-ereintzan,
Lasa izan bezin saiatuak izaten ; Kristaulasunean, Batista « Be-
korretako » izan zan irudikoak izaten ; leialtasunean, gure Mar-
tin « Koxkote » arlotea izan zan bezin esku-garbi eta biotz-one-
koak izaten, eta EUSKALDUNTASUNEAN, Iparragirre zanaren
antza izaten, berarekin batean abestuaz, aurkitu izango geran
lurralde guzietan, tinko eta gartsu, bere egundako kanta zar
biotzeko ura :

« Gazte gaztetatikan,
erritik kanpora ;
erbeste aldean
pasa det denbora :
Errialde guzietan
toki onak ba'dira...
baña biotzak dio :
ZUAZ EUSKAL-ERRIRA ! »

